BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4838

EBAZPENA, 2012ko urriaren 9koa, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Honen bidez, Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendariaren 2012ko urriaren 8ko Ebazpena Herrizaingo Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholetan zein egunetan jarriko den iragartzen da. Aipatutako ebazpenaren bidez, Herrizaingo Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako aldi baterako lan-zerbitzuak emateko lan-poltsak eguneratzeko neurriak hartu dira.

Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendariaren 2012ko urriaren 8ko Ebazpenaren bidez, Herrizaingo Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako aldi baterako lan-zerbitzuak emateko lan-poltsak eguneratzeko neurriak hartzen dira, eta horren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean azalduko da 2012ko azaroaren 5ean Araubide Juridiko eta Zerbitzuen zuzendariaren 2012ko urriaren 8ko Ebazpena jarriko dela Herrizaingo Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholetan. Aipatutako ebazpenaren bidez, Herrizaingo Saileko eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako aldi baterako lan-zerbitzuak emateko lan-poltsak eguneratzeko neurriak hartzen dira.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko dute Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 107. eta 114. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 9a.

Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordea,
NÉLIDA SANTOS DÍAZ.